

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	INPRIMAKETA DIGITALA PRESTATZEA ETA DOITZEA	Iraupena	60
		Berariazkoa	
Kodea	UF0246		
Lanbide-arloa	ARTE GRAFIKOAK		
Lanbide-eremua	Inprimaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Inprimaketa digitala	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Gailu digitalekiko inprimaketa	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Inprimaketa digitala egitea	Iraupena	50
	Hondakinen mantentze-lanak, segurtasuna eta tratamendua inprimaketa digitalean (zeharkakoa)	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0483_2 EKIPOAK PRESTATZEA, PARAMETROAK DOITZEA ETA INPRIMAKETA DIGITALA EGITEA gaitasun-ataleko LB1, LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Inprimaketa digitalerako makina eta ekipo nagusiak prestatzeko eragiketak egitea.
- EI1.1 Zuzeneko eta zeharkako inprimaketa digitalerako sistemak deskribatzea.
 - EI1.2 Irudia osatzeko mekanismoak deskribatzea.
 - EI1.3 Elikatzearen, euskarriaren erregistroaren, garraioaren eta irteeraren mekanismoak deskribatzea eta erlazionatzea.
 - EI1.4 Inprimaketa digitaleko tiradarako behar diren erregulazio-eragiketak aztertzea.
 - EI1.5 Irudi-danborraren edo injekzio-buruen egitura eta osaera ezagutzea eta definitzea.
 - EI1.6 Bistaratzailaren transferentzia-elementuen iraunkortasuna eta portaera erlazionatzea hezetasunagatik, temperaturagatik eta esfortzu mekanikoagatik jasaten dituzten aldaketekin.
 - EI1.7 Behar bezala bereizitako lan-agindu bat interpretatuzetik abiatuta, hauen mekanismoak erregulatzea:
 - Elikatze-aparatua, garraioa eta irteera.
 - Tindatzeko ahalmena.
 - Zilindroen presioa eta finkatzeko tenperatura.
- A2: Laborategiko saioretan eta/edo makinan bertan, lehengaien eta produktu osagarrien propietate eta ezaugarri nagusiak ezagutzea eta aztertzea, tresna egokiak erabiliz.
- EI2.1 Paperezko eta ez-paperezko euskarrien (papera, kaxa-kartoia, kartoia, ehuna, metala, zura, beira, sintetikoa, akrilikoa, binilozkoa eta bestelako euskarriak) egituraren ezaugarriak ezagutzea eta deskribatzea.
 - EI2.2 Euskarrien ezaugarri eta propietate fisiko eta kimiko nagusiak bereiztea eta deskribatzea, eta dagozkien ataletan adieraztea.
 - EI2.3 Inprimaketa digitalean erabiltzen diren euskarrien akats eta aldaketa nagusiak bereiztea.
 - EI2.4 Tintekin eta tonerrek inprimaketa digitaleko pigmentu, olio, disolbatzaile eta berniz nagusiak deskribatzea.
 - EI2.5 Elementu bistaratzailak erlazionatzea euskarriari, inprimaketa digitalerako sistemei eta koadernaketa- eta transformazio-prozesuei dagokienez.

Edukiak

1. **Inprimaketa digitaleko prozesuak**
 - o Inprimaketa-prozedurak.
 - o Teknologia-motak.
 - o Eragiketak. Kontrol-parametroak.
 - o Inprimatze-makinak: kaier bidezkoa, bobina bidezkoa.
 - o Atal nagusiak: ezaugarriak, egiturak eta motak.
 - o Segurtasun- eta higiene-planak eta -arauak.
 - o Babes-neurriak.
2. **Inprimaketa digitalerako ekipoak prestatzea**
 - o Orriak elikatzen dituen aparatua edo bobina.
 - o Orriak kanporatzen dituen sistema edo bobina.

- Barne-mekanismoak eta erregulazioak.
- Inprimatze-multzoa: zilindroak, estalkiak eta injektoreak.
- Tindatze-multzoa: tindatze-motak, erregulazioa eta tindatzearen kontrola.
- Inprimatzeko forma dinamikoak: irudi-zilindroaren estalkiak, fabrikazioa, muntaia, tratamendua eta kontserbazioa.
- Neurgailuak.

3. Inprimatu beharreko euskarria prestatzea

- Euskarria egiaztatzea.
- Euskarria manipulatzeko.
- Euskarria doitzeko eta tratatzeko.

4. Elementu bistaratzailerak prestatzea

- Beharrezko elementu bistaratzailerak guztiak egiaztatzea.
- Elementu bistaratzailerak inprimatu beharreko euskarrirako prestatzea.
- Neurgailu kolorimetrikoekin kolorearen fidagarritasuna egiaztatzea.
- Elementu bistaratzailerak inprimaketa-sistemarekin eta beren koadernaketa-rekin edo transformatuarekin egiaztatzea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.

Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Inprimaketa digitala.